

Jatetxean bezala

- Hiru haurrak batera : Ama, gose gara !
- Ama : Zaudete istaño bat, egun menu berezia egiten baitizuet. Anartean, mahaia ezar ezazue eta jar zaitezte.
- Ama : Hara, Pette, zuri lur-sagar purea egin dizut xingar xuriarekin.
- Pette : Egiazko purea ? Milesker, ama. Arratsetan hori da gehienik maite dudana.
- Ama : Zuri, Margarita, tomate beteak irrisarekin prestatu dizkizut.
- Margarita : Hummmm ! Zer asean egingen dudana !
- Kattina : Eta niri, zer egin didazu ?
- Ama : Zuri, azietatara bat gauza on apailatu dizut : arroltze gogor bat, bi tomate xerra, entsalada hosto bat, koilatara bat arto, lukainka bat.
- Pette : Eta deserta gisa zer emanen diguzu ?
- Ama : Hautua baduzue : izozki bat, fruitu bat, esneki bat edo pastizeria bat.
- Margarita : Zein ontsa! Iduri du jatetxean garela !
- Kattina : Bai eta gainera kitorik da !
- Ama : Ez da arras kitorik : muxu bedera emanen didazue.

Jokalariak : Hiru haur (Pette, Margarita, Kattina) eta ama (edo aita)
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti